**BIZKAIKO ONDARE HISTORIKOA**

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# Irauregiko San Andolin ermita (Alonsotegi)

## Eraikina

Hareharrizkoa da, bi gunetan banaturiko harlangaitzean emana: nabea eta goi-burua. Nabe errektangeluarra da eta lau zati ditu, eta goi-burua karratua eta estuagoa da.

Gangaz estalita dago hirukoen gurutzeriarekin goi-buruko/absideko horman, eta nerbio bakunekin gainerakoan. Absideko nerbioak nazelen bidez mehetzen dira. Bertan, "putti" pintzelkadak ditu, baita zurezko ordezko klabea ere. Nabeko nerbioak, berriz, zutabe-sortetara jaisten dira.

1975eko berrikuntza-lanetan, hegoaldeko sarrera bat aurkitu zen, abaniko gisa jarritako hari biziko dobelen erdi-puntukoak, hain zuzen zurezko portiko txiki baten azpian babestutako sartaldeko hastialena bezalakoa (erabilgarria). Bertikalean kanpai-horma doa, atal batekoa, eta akaberan frontoi triangeluarreko kanpaietarako bi bao daude, ermitaren zati gisa. Harlanduaz berregina dago kanpai-horma.

## Azterketa

Ermita sortu zenean, hots, XVI. mendean (1591. urtean, seguru asko), Coscojales familiarentzat zen; izan ere, inguru hartako burdinola eta dorre-etxe bateko jabeak ziren. Ordutik hona harresiaren perimetroa besterik ez da gelditzen, bi sarrerekin eta grisalla gisa eginiko pinturak zituen goi-buru osoarekin. Gainerakoan, teilapea zeukan, eta egungo teilatua Alfredo Acebalek 1906. urtean eginiko berrikuntza-lanetan eraiki zen. Garai hartan ia aurri egoeran zegoen, 1871ean salatu izan zenez. Azkenean, hormak pikatu eta zenbait elementu aurkitu ziren 1975. urtean.

## Altzariak

Zurezko erretaula da, banku eta atiko gaineko atal nagusian banatua, zutabe joniar ildaskatuek definituriko hiru ildotan. Maskor itxurakoak dira etxeak. Hauxe da ikonografia: bankuko bi panelak "pendant" gisa daude senar-emazte emaileekin, eta bankuaren erdian, Berpiztuaren sagrarioa dago; pisuko etxea, Amabirjina eta zutik dagoen Haurrarentzat, aurreraturiko gotiko estilokoa (XIV - XV. mendeak), oinarri-oinarrian gehiegi zaharberritua; San Andolin titularraren taila (0,90 m.), nahikoa ehun gogorrekoa eta berriz aprobetxatua; eta hirugarren irudia Santu Zauritu bati dagokio, erretaularen garaikidea, atikoko Pietatearen erliebea bezala. Era berean, Castaños, Soberron, Montaño eta Castillo abizenen babesari buruzko bi armarri daude goiko aldean.

Txikia bada ere, XVII. mendearen hasierako altzari erromanista-klasizista da, baina berriz pintaturiko irudiak eta bestelako irudiak nahastuta ageri dira nolabait. Beranduko ezaugarriak ditu -etxeko iturriak- baina azkenean ebanisteria ederra erakusten du.

## Balorazioa

Eraikinean, berez, dorre-etxe edota burdinola bati erantsiriko fundazio pribatuen kategoriakoen ezaugarri komunak islatzen dira: funtzionalak eta domekako kultuetarako eta ugazaben eta olagizonen beste ospakizun erlijiosoetarako nahikoak dira doi-doi. Pinturak dituen goi-burua eta erretaula nabarmendu behar dira, balio artistikoagatik eta historikoagatik.

**Testua:** José Ángel Barrio Loza.

**Irauregiko San Andolin ermita**

Alonsotegi.

**Nola heldu:**

BI-636 errepidetik. Alonsotegiko erdialdean, Kadagua ibairantz desbideratu behar dugu. Zubialdearen bestaldean dago ermita.

Tren geltokia du (Balmasedarako FEVE).